

**Jon beldurraren bila.** - Aitak etsi du. Ezin dio Jon gajoari beldurra zer den azaldu. Franksteinena eta bestelako istorio beldurgarriak kontatuta ere, ezin du Jon izutu, iluntasunak eta sustoek ere ez dute Jon kikiltzen. Hortaz, haren bila abiatzeko aholkatzen dio txikitxoari. Alde egin dezan nahi du, bere kabuz beldurra zer den ikusi dezan. Bidean sorginak, mamuak, piratak, banpiroak, erraldoiak... denetik aurkitzen du eta ezertxok ere ez du izutzen. Finean irakaspen bat utzi nahi izan zuten larunbateko obrarekin, beldurra zer den ez dakienak adorea ere ez duela sekula ezagutuko. Umorea oinarri hartuta, herriko gaztetxoenei mezu hori barneratzen saiatu ziren larunbat ilunabarrean Manuel Lekuonan. Txalo konpainiako Alfonso Diez eta Aitor Fernandino aktoreak izan ziren protagonista "Jon Beldurgabea" antzerkian. Aitor Fernandino herriko aktoreak egin zituen Jonen argitsuaren lanak. Alfonso Diezek gainerako pertsonaia guztiak interpretatu zituen. Zuri beltza nagusi zuen atzealdean txotxongiloak ikusteko aukera ere izan zen Grimm anaien liburu ospetsutik abiatuta egindako obran. Normalean baino ikusle gehiago hurbildu ziren kultur-etxera. Bertaratu ziren herritarrek arratsalde pasa polita egin zuten eta irakaspen bat edo beste jasota alde egingo zuen etxera batek baino gehiagok.

## 2 UDALA 2014ko tasen ordenantza fiskalak onartu ditu Udalak

Udalak 2014ko ordenantza fiskalak onartu ditu. Bidu, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuaren bozkekin ateraziren aurrera azaroaren 8an. PSE-EEK kontra bozkatu zuen eta EAJ abstenitu egin zen. Udalak adierazi duenez, Gizarte Zerbitzuetan egin dira aldaketa garrantzitsuenak.

## 3 INGURUMENA Erraustegia eraikitzeko kontratua etenda

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko eta UTE GIPUZKOA CGRko ordezkariak Zubietako errauste plantaren kontratuari buruz akordio batera iritsi direla jakitera eman dute. Ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak kalte-ordain modura, 8.190.000 euro ordainduko die enpresei.

## 5 XIRIMIRI Herriko tabernen auzian epaitzen ari dira Xirimiri elkarte

Maider Izagirre, Peio Lizarraga, Joxe Goikoetxea eta Tomas Arruti Xirimiriko bazkideekin hitz egin dugu Madril burutzen ari den Herriko Tabernen epaiketaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko. Xirimiri elkarte 35/02 sumarioaren baitan epaitzen ari dira, beste 110 herrikorekin batera.



CARNICERÍA  
**ARANZABAL** Etorri gugana  
eta  
probatu gure kalitatea!  
HARATEGIA

Txekor hanburgesa  
7,50 €/kiloa.  
Kilo batekin,  
oilasko bat OPARI

Jaizkibel plaza 11  
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

**botika+**  
gandarias uribe

ortopedia sekzioa

Iñigo de Loiola 9  
20160 Lasarte - Oria  
Tel.: 943 019521  
farmaortopediagaur@gmail.com

Farmazia  
Parafarmazia  
Ortopedia

Lasarte-Oriako  
**ORTOPEDIA** bakarra

UDALA

# "Benetako iraultza" ordenantza fiskaletan

*PSE-EEK Ordenantza fiskalen aurka egin zuen eta EAJ abstenitu zen azken Udalbatzarrean*

**Azaroaren 8an 2014ko tasak jasotzen dituen Ordenantza fiskalak onartu zituen udalak, eta beste urteetan ez bezala zenbait ordenantza errotik aldatu direla azaldu nahi izan zuten Pablo Barrio alkateak eta Gorka Lizarragak Gizarte Zerbitzuetako buruak. Agerraldian azpimarratu zuten, Gizarte Zerbitzuetan daude aldaketa garrantzitsuenak.**

MAIDER AZURMENDI

**B**i ezaugarri nagusi bil-tzen dituzte ordenantza berri hauek agerraldian alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako buruak azaldu zuten. "Alde batetik, behar gehien duten herritarrei laguntzeko eginak daude eta beste aldetik, herriko elkarteak eta herri bizi bati bide berriak irekiko dizkie udal baliabideak doan utziaz".

Aldaketa nagusia tasa berrietan, baztertze egoeran dauden pertsonen hemendik aurrera izango dituzten hobarien moldaketan datza alkatearen esanetan. "Gizarte Zerbitzuetatik egiten den lanean tresna baliagarria izango dira, izan ere, egoera ekonomiko kaxkarrean dauden familiei diru-laguntza eman ohi zaizkie AGI, Udal diru-laguntzak, AES, RGI eta abar".

Hauek emateaz gain, udal zerbitzuetarako doako sarrera bermatuko zaie datorren urte-tik aurrera. Familia hauek kiroldegirako sarrera doan izango dute, Euskaltegian eta Musika Eskolan doan ikasi ahal izango dute, kiroldegiko kurtsoak eta emakumeen zentroko aktibitateak doan, kultur etxeko aktibitate eta tailerrak doan, Gaztelekuko kurtsoak doan eta zabor tasa ere ez dute ordaindu beharko.

Alkatearen esanetan ordenantza fiskal berriak egiteko garaian bilatu da "egoera ekonomiko txarrean dauden familiek gizarte txertatuak egotea eta baliabide ekonomiko nahikoak dituzten familietako ume eta gurasoekin batera udal zerbitzu guztiak erabiltzeko aukera izatea nahi dugu".

"Benetako iraultza" bezala definitu dute udal ordezkariak, izan ere, aurten 5 familiek soilik izan dituzte tasak salbuesiak zeuden baldintza zaharkituek eraginda.

Gorka Lizarragak azaldu zuenez, 2014an Eusko Jaurlaritzak RGI eta AES dirulaguntzak banatzeko erabiltzen duen taula izango da hemendik aurrera erreferentzia salbuespenak egiteko eta baldintza hauek betetzen dituzten familiak salbuesita egongo dira ehuneko ehunetan tasa horiek ordaintzetik.

Lasarte-Oria 375 pertsona inguruk jasotzen dute RGI-a eta 170 inguruk AES-a. Baina horretaz gain, neurri horretara iristen ez diren familiek ere izango dituzte hobariak %75, %50 eta %25ekoak. "Hain zuzen tasetan progresibitate neurriak ezarriko ditugu".

## EAJ-ren abstentzioa erantzukizunagatik

**L**asarte-Oriako EAJk lehengo lastean onartutako ordenantza fiskalen gainean balorazioa egin zuen ostiralean.

Lan teknikoari garrantzia eman zion alderdi jeltzaleak. "Gure ustetan, zorrotasun handiarekin egindako proiektu serio baten aurrean ginen zeinen ondorioz, koherentzia eman zitzaion oinarritzko bi politikari: "Exentzioak eta bonifikazioak" izenekoari eta "Udal instalazioak erabiltzearen prezio publikoak" izenekoari," aipatu zuen Estitxu Alkorta.

Bilduk eta Plataformak udaleko dependentzien erabileran, espazio publikoen erabileran eta udaleko giza baliabide eta bitarteko guztien erabileran



Bildu, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuaren bozkekin onartu ziren ordenantza fiskalak.

Hauek guztiak kudeatzeaz Gizarte Zerbitzuak arduratuko dira eta eskabidea egiteko bideak aurrerago zehaztu eta publiko egingo direla esan zuen zinegotziak.

Orokorrean bere sailean lan egiten duten langileek ondo hartu dituzte ordenantza hauek zinegotziak azaldu moduan "gizarte langileak egunero daude gaizki pasatzen ari diren pertsona, familia hauekin. Euren helburua hauek gizarteratzea da eta

neurri berri hauei esker errazago dela iruditu zaie". Orain arteko diru laguntzekin etxebizitza eta jana ordaintzeko iristen zitzairen soilik eta neurri hauei esker udaletik uste dute errazagoa izango zaiela batez ere, haur eta gazteak dituzten familietan.

### Elkarteei laguntza

Bestalde, herriko elkarteek egiten duten lana beharrezkoa dela iritzita, udal instalazio eta baliabideak doan erabiltzeko

arauak zehaztu dira. "Udalak ematen dituen kurtso, jarduera eta zerbitzu guztiak elkarteek ematen dituztenekin aberastu egiten dira. Irabazi asmorik gabe ematen dituzte, boluntarioen bidez askotan eta herritarren onurarakoak izan ohi dira. Horregatik, Udalaren aldetik ahalik eta erraztasun handienak jartzea beste biderik ez dugu ikusten ekimenak ugarituz joan daitezen".

Auditorio, areto eta bilera gelez gain elkarteek oholza, jaima, hesi eta elektrizitatea besteak beste doan erabiltzeko eskubidea izango dute beti ere interes orokorrekoak diren jarduerak antolatzen dituztenean.

Ingurumenari dagokionez, auzo konposta egiten duten familiei ere hobariak emango zaizkie "gutxiago kutsatzen dutelako eta beste auzoetara zabaltzeko konpromesa ere hartzen dugu". Bide beretik erabaki da gehien kutsatzen dutenek, zilindrada altuko turismoak kasu, gehiago ordaintzea.

Udalak neurri hauek hartuta diru sarrera gutxiago izango dituela aurreikusi dela adierazi zuen alkateak baina Aldunditik diru gehiago jasoko ditugu Barrioren esanetan 2014rako aurrekontu orekatu batzuk egingo dira sarrera murrizketa hau kontutan izanda.

elkarte guztientzat erabateko doakotasuna onartu dutela azpimarratu zuen eta honek gastuaren gehikuntza kontrolatu gabea sortaraziko duela ohartarazi zuen.

Eta bi alderdi hauek hilabeteetan zehar Udaletxean arlo teknikoek udal-baliabideen erabilerarako politika serio eta arduradun baten alde egindako lana gutxietsi izanaz penatu zuten.

Hau guztiagatik EAJk abstentzio bozka eman zuen Udalbatzarrean, "erantzukizunagatik, ezin genion proiektu osoari aurkako bozka eman, izan ere, salbuespen batzuk kenduta, ordenantza hauetan jasotzen diren neurri ekono-


miko garrantzitsuenetako sustatzaileak izan baikara".

Udaletxean gobernantza egonkor bat egon dadin lana egingo duela aipatu zuen EAJk. "EAJ-k ez du Udal-Gobernua parte hartzen. Independentzia osoarekin defendatzen eta defendatuko ditugu gure ideiak, gure kudeaketa, eta gure lan egiteko moduak. Orain honetan bezala, gainontzekoak konbentzitzen eta adostasunetara iristen saiatuko gara".

Hori posible ez balitz, alderdi jeltzalearen ustez herritarrentzat onena dena aurrera eramateko bere esku dauden tresna demokratikoak erabiliko dituela jakitera eman zuen.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

**943 366 858/943 371 448**

G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Eredakzioa:

Nerea Eizagirre, Maider  
Azurmendi, Jon Altuna E.

**txintxarri@txintxarri.info**

#### Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Jone M. Hernandez,  
Oihana Salazar, Pako Aizpitarte,  
Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA

## Egutegiarekin eztabaida

## PSE-EEren mozioa izan zen eztabaidatuena alderdien artean

Ohiko udalbatzara izan zen aurreko asteartean eta gaien artean eztabaidatuenetakoa izan zen udalaren lan egutegiarena. PSE-EEK aurkeztutako moziaren hari-erorri zen.



Nerea Artamendi PSE-EEko zinegotzia ez zen udalbatzarrean egon.

TXINTXARRI

Ohiko udalbatzara lasaia zirudien. Lehenengo gaiak onartuta. Udalaren jabetzakakoak diren garaje-plazen eskaintza jarraiturako prozedura arautuko duten baldintzen aldaketari zegokion ordenean baina Estitxu Alkorkak azaldu zuen ez zela eztabaidatu behar.

Jarraian Kidetza elkarteak aurkeztutako mozioa bozkatu zen. Alderdiak ez zuten bat egin testuarekin. PSE-EEK adierazi zuenez, egun epaileek custodia partekatua erabakitzeko aukera dute beti ere, kasu bakoitza aztertuta eta mozio honekin kasu guztientzako lege bakarra eskatzen dela argudiatu zuen Zaballosek. Antzeko bidetik arrazoitu zuen Nere Sanchezek Bilduren aurkako bozka.

## Lan egutegi ofiziala

Eztabaida PSE-EEK udalaren lan egutegiaren inguruan aurkeztutako mozioarekin iritsi zen. Donostiako epaitegiak ebatzi duenez, udalak ez dauka eskumenik Estatuko jai egun ofizialak beste egun batzuetara mugitzeko, urriak 12, urriak 25 eta abenduaren 6a.

Hala ere, udal langileek jai egun ofizialetan lan egin ahal izango dute arrazoituta dagoenean. Horrela alkateak esan zuen udalak epaiak esandakoa akatatuko zuela eta beharrezkoak diren justifikazioak helaraziko dituela "gure ustez herritarrentzat ona da jai egun hauetan udala zabalik aurkitzea".

PPko zinegotziak gogor tranpa egitea zela esan zuen eta Zaballosekin batera leporatu zion udal gobernari jai egun horietan arrazoi politikoengatik lan egitearen aukera dela eskaintzen zaiena langileei, ez lan arrazoiengatik. Hori onartezina dela iritzi zuten Zaballos eta Velezek.

Mozioa aurrera atera zen PP, PSE-EE eta adskribitu gabeko zinegotziaren bozekin, LOHP eta EAJ abstenitu ziren eta Bilduk kontra bozkatu zuen.

Herriko tabernen auzien inguruan Bildu eta EAJk aurkeztu zuten mozioa 35/02 eta 26/11 sumarioen epaiketa gaitzesteko. PP eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten, Marisa Zubiri eta LOHP abstenitu eta EAJ eta Bilduren aldeko bozekin onartu egin zen.

Azkenik, urgentziakoa onartu zen Filipinetan gertatutako hondamendiraren inguruko testua. Alderdiak elkartasuna adierazi nahi izan zuten eta Gurutze Gorriaren diru bilketan laguntza ematera animatu zituzten herritar-rrak. Bildu abstenitu zen iritzita beste hondamendi "ez hain mediatikoak gertatzen dira eta ez diegu behar beste-ko oihartzunik ematen".

Galdera eta erreguen txandan Jesus Zaballosek galdetuta hainbat gai atera ziren. Horrela 2014ko aurrekontuak martxan direla azaldu zuen Estitxu Alkorkak. Oriako etxebizitza batzuetan berriz pitzadurak agertu direla eta kexu dira bizilagunak eta Nerea Sanchezek esan zuen aspaldiko arazoa zela "Beharrezkoa bada berriz hitz egingo dugu". Okendoko garajeen kontuari dagokionez, "prozesua ahalik eta azkarren joan dadin ari gara lanean".

Bestalde kooperaziorako diru laguntzen gainean egin behar zen txostena Alkorkak esan zuen laster jasoko dutela.

Azkenik PPko zinegotziak herrian dauden pankartak kentzeko eskaera luzatu zion udal gobernari.

## LANAK

## Oztaranen lanak gaurtik aurrera

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, Oztarango errotonda inguruan hodi biltzailearen ubideratzea egingo da.

Lan hau gaur hasi eta hilabeteko epean burutuko da. Ondorioz, bertako trafikoak aldaketak jasango ditu hurrengo asteetan, Txartel aurreko errepide zatia bi norabideko bihurtuko da eta semaforo bidez zuzendua egongo da.

Udaletik barkamena eskatu nahi izan dute sor daitezkeen eragozpenengatik.

## UDAL MUSIKA ESKOLA

## Santa Zeziliaren ohorezko kalejira

Azaroaren 22an, Musikarien zaindariaren eguna da, Santa Zezilia eguna. Egun seinalatu hori ospatzeko, bihar 18:15etik aurrera Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek kalejira egingo dute. Bi geldione izango dira bata Manuel Lekuona kultur-etxean eta bestea Okendo plazan.

Era berean, Udal Musika eskolako zuzendaritzak gogoratzten du, Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an, ostirala musika eskola itxia egongo dela.

## AMARAUN

## Sentimenduak ipuinetan barrena!

Amaraun klubaren barruan, ipuin-kontalari saio berezi bat izango da hurrengo ostegunean, azaroaren 21ean. Izan ere, haien sentimenduak ere landuko baituzte haurrek.

3-4 urteko haurrei, 2010 eta 2009 urteetan jaiotakoek hian zuzen ere zuzendutako saioa izango da, 18:00etatik 19:00ak bitarte, Amaraun ludotekan egingo dena.

Honetan, Satortxoren abenturekin primeran pasako dute haurrek. Istorioa kontatzeaz gain, asmakizunak, errepikapenak, begiradak... baliabide izango dira haurrek haserrearen sentimendua barneratzeko.

Saio honetan parte hartu edo informazioa eskuratu nahiez gero, 943 371 448 telefonora deitu edo [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) helbidera mezuz bidaltzea besterik ez dute interesatuek.

## GURE ESKU DAGO

## Erabakitzeko eskubidea

Angel Oiarbide "Gure esku dago" dinamika aurkeztu zuen asteazkenean Villa Mirentxun.

Dinamikaren oinarria herriterren erabakitzeko eskubidea dela eta honek jarraituko dituen pausoko jakitera eman zituen. Egun sartzeko lanak egiten ari da dinamika hainbat herritan eta aurrera eraman diren hainbat ekintza azpimarratu zituen Oiarbidek, hala nola, hainbat artistekin batera egin den bideoa.

Etorkizuneko ekintzak ere azaldu zituen. Nagusiaen ekainaren 8an Durango eta Iruñea arteko gizakatea. Lasarte-Oriako 400 bat pertsona behar direla aipatu zuen.



## Erraustegia eraikitzeke kontratua eten da

Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzio eta UTE GIPIZKOA CGRko ordezkariak asteazkenean Zubietako errauste plantaren kontratuari buruz akordio batera iritsi zirela jakitera eman zuten.

Urriaren hasi ziren negoziaketak eta hilabete bat besterik ez dute behar izan bi aldeak bat etortzeko.

Sinatutako akordioaren arabera, bi aldeek arteko kontratu harremana amaitzen da. Era honetara, ondorioz gabe uzten dute Zubietako erraustegia eraikitzeke proiektua.

Prensaurrekoan aipatu zuten bezala, Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioak UTE



Uztailean GHK-k erraustegia plantaren lanak etetea erabaki zuen.

GIPIZKOA CGR-ri honako zenbateko hau ordainduko dio: % 3 eraiki gabe geratu den zatiaren lortu gabeko irabazienengatik, eta % 3 CGRGk proiektatutako planten ustia-

penaren bost lehenengo urteengatik.

Ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioak kalte-ordain modura, 8.190.000 euro ordainduko die enpresei.

## Abizenak euskalduntzen

Buruntzaldeko sei udalek elkarrekin abian jarri dute berriro ere, Apelliduak abizendu kanpaina. 18 urte betetzen dituzten gazteei eskutitz bat bidaliko die Udalak ekimen honi buruz gehiago jakiteko.

Apelliduak abizendu kanpainaren helburua euskarazko abizenak euskarazko grafiarekin idaztea da. Hau da, gazteek euskal abizena badute, euskarazko grafiarekin zuzen idatzia ez badago eta zuzentzeko gogo badute, orain dute aukera erraza.

Baina gazteek ez ezik, gaintzeko herritarrek ere haien abizena euskal grafiara aldatu dezaketela gogoratzen

du Lasarte-Oriako Euskara batzordeak.

## Agiriak

Honela, etxera iritsiko den eskutitzan azaltzen den moduan ezkondu gabeen kasuan, errolda, jaiotagiri literala eta NAN fotokopia bake epaitegira, Asteasuain kalea 1, behea eraman behar dituzte; ezkondukoen kasuan, berriz, agiri horiek guztiak eta famili liburua. Bake epaitegiko langileek egingo dute aldaketa.

Argibideren bat beharrez gero, Bake Epaitegira, 943 371 629 edo Udaleko Euskarako Zerbitzura, 943 376 184 dei dezaketet interesatuak.

# Kabareta Manuel Lekuonan

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunari begira egindako obra izan da

*Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroko interpretazio taldeak "El cabaret de Madame" antzezlan eskaini zuen ostiral ilunabarrean Manuel Lekuonako auditorio nagusian. Ia goraino bete zen, eta ikusleetako gehien gehienak emakumezkoak izan ziren. Antzerkia ikustera hurbildu zirenek barre algara ederrak egin zituzten, gehienbat umorezkoa izan baitzen, halere, hausnarketarako beta ematen zuten mezuak ere tartekatatu zituzten.*

TXINTXARRI

Emakumeen zentro zibikoko 12 lagun artean osaturiko talde amateurrek azken hilabeteetan beraiek sorturiko "kabareta" interpretatu zuten ostiral ilunabarrean Manuel Lekuona kultur-etxeako auditorio nagusian.

Bertan Mademe bat, magoak, mexikarrak, arabiarak, errusiarrak... denetarik ikusteko aukera izan zuten gonbidapen bidez antzerkirako sarrera lortu zutenek.

Artistak banan bana oholtzaratu ziren. Amateurrek izateko, patxada ederra erakutsi zuten, euren testua ondo ikasita eta inprobisaziorako beta utziz jardun ziren guztiak.

Euren burua aurkeztu ostean, banan bana oholtzaratu ziren antzerkiko protagonistak.

Behin Madameak bere neskak ondo lerrokatuta zituela, bakoitzaren beldur, zalantza eta gabeziak agertu zituzten, umore onean betiere, dramarik gabe.

Horrek ordea, ez zien dantzan eginez eta gorputza mugituz ongi pasatzea oztopatu. Askotan norberaren buruari jarritako beldurrak blokeatuta, gauza berriak probatzeari ezetz esaten diogu eta esperientzia berriei atek ixtea izaten da lehen erreakzioa. Behin atea zabaldua, mundu oso bat agertzen zaigu aurrean.

## Azaroaren 25ari begira

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna da azaroaren 25. Egun hori iritsi bitartean, bideoforuma, ipuin kontakizuna eta herri afaria prestatu dituzte.



Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki talde amateurrek "El cabaret de Madame" interpretatu zuen, umore onean.

## Egitaraua

Azaroak 19 ostirala, 19:30etan

Bideo Foruma: Blue Valentine, Kultur etxeako hitzaldi aretoan

Azaroak 22 ostirala, 21:30etan,

Udalerriko pertsona guztiei irekitako herri afaria.

Araeta jatetxean.

Prezioa: 22 euro

Azaroak 23 larunbata, 11:00etan

Haurrentzako ipuin kontalaria, Bizarrurdinak. Maite Franco kontalaria. Kultur Etxeko haurren liburutegian

Azaroak 25 astelehena, 19:00etan

Emakumeenganako Indar-

keriaren aurkako nazioarteko eguna.

Elkarretaratzea Okendon.

Abenduak 14 larunbata, 10:00-14:00 / 15:30-19:30

Emakume gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra 16-30 urte bitarteko gazteentzat.

Dinamizatzailea: Emagin elkarte.

Gaztelekuan, gehienez 20 pertsonarentzat.

## Mitxel Turrientes eta Kepa Rezabal presoak herrian dira

Ostegunean 22:00ak inguruan aterata ziren Mitxel Turrientes eta Kepa Rezabal herritarrek espexetik. Biek 27 urte egin dituzte kartzelan. Mitxel Turrientes berehala herrira abiatu zen senide eta lagunekin, Txurdi berriz, lagun eta senideekin gaua bidean pasa ostean, ostiralean iritsi zen Lasarte-Oriara.

Herriko bi presoak libre geratu ziren Estrasburgoko epaiaren ondorioz. Mitxel Turrientes eta Kepa Rezabalek 27 urte egin dituzte espexean, lehenengoak Herrera de la Mantxan, Ciudad Realen egin dituzte guztiak eta Kepa Rezabal Lugoko Monterroxtatik aterata zen.

Txurdiren lagunak adierazi moduan, kanpoan lagunak eta prentsa zeuden zain eta senideak barrura sartzen utzi zituzten. Urduritasuna izan zen nagusi espexetik ateratzen ikusi arte. "Sei lagun joan ginen eta ez genekien ziur noiz aterako zen, beraz urduritasunarekin bizi genituen ordu horiek". Ateratzerakoan momentu hunkigarriak bizi zituzten "negarra, besarka-

dak, parrak... denetarik". Aipagarria da espexetik kanpoan ez zutela arazorik izan, "dena normaltasunez joan da, Txurdi pozik ikusi dugu eta hainbat gauzekin hasieratik harrিতuta".

Berandu zela iritzita, bidean lo egitea erabaki zuten. "Afaltzeko garaian konturatu ginen labana begiratzen geratzen zela. Guretzako arrunta dena ez da berarentzat, plastikozkoak erabili ditu 27 urtetan eta halako bat esku artean edukitzea ia berria zen".

Goizean lasai jaiki eta bideari ekin zioten. Bidaia "lasaia" egin nahi izan zuten geldialdiak eginez Lasarte-Oriara iritsi aurretik. Kepa Rezabalek laister 51 urte beteko zituela azpimarratu du lagunetako batek "bizitza erdia baino gehiago pasa du espexean".

Azken asteak senide eta lagunentzat bereziki gogorrak izan direla diote. Ines del Rio kalean geratu zenetik, lehenago espero zuten euren lagunaren kaleratzea "berak ordea nahiko lasai hartu duela esan

digu, lasaitasunez itxaron zuten iteera ordua zein izango zen, guk ez bezala".

## Zuzenean herrira

Mitxel Turrientesek berriz 27 urte egin ditu espexean eta senide batek azaldu bezala emaztea eta semearekin Lasarte-Oriara iristeko gogoarekin zegoen. Ciudad Realera hainbat lagun eta senide joan ziren eta "momentu hunkigarriak bizi izan zituzten".

Turrientes espexean zegoela ezkondu zen eta atzo lehenengo aldiz eduki zuen 25 urteko semea kalean ikusteko aukera. Txurdiren kasuan bezala, prentsa kanpoan egon zen, baina beselako arazo aipagarriak ez.

"Telefonoz herriko lagun askorekin hitz egin zuen eta apur bat mareatuta azaltzen zen hainbeste ahotsekin etab. Pozik aterata zen oso hunkituta eta bereziki herrira iristeko irrikitan". Goizeko bostak inguru iritsi ziren herrira. Datozen asteetan Niko Francisko eta Ina Orotegi presoan egoera argitu daiteke.



Txurdi (ezkerretik hasita hirugarrena) koadrilako lagunekin Galizian, Monterroxtatik aterata berritan.



Mitxel Turrientes semea eta emaztearekin.

# "Herrian lanean jarraituko dugu"

Xirimiri 35/02 sumarioaren baitan epaitzen ari diren 110 herriko tabernetako bat da

Maider Izagirre, Peio Lizarraga, Joxe Goikoetxea eta Tomas Arruti Xirimiriko bazkideekin hitz egin dugu Madrilén burutzen ari den Herriko Tabernen epaiketaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko. Lasarte-Oriako Xirimiri elkarte dago epaitzen ari diren 110 herrikoen artean.

Maider AZURMENDI

**M**adrilén burutzen ari den epaiketara Joxe Goikoetxea herritarra, Xirimiri elkartearen lehendakaria, arduradun zibil bezala joan behar da. Hurrengo saioetara bi lekuko eraman beharko ditu horietako bat Peio Lizarraga, duela 11 urte, Garzonek sumarioa zabaldu zuenean, elkartearen diruzaina zena. Herritarrengandik jasotako babesaz azpimarratzen dute momentu zail honetan. Izan ere, Xirimiriren biziraupena airean dago, epaia-aren gastu altuei aurre egin behar dielako besteak beste.

## Ez dakitenentzat, zer ari dira epaitzen Madrilén?

35/02 sumarioaren epaiketa da, Herriko Tabernen auzia. Garzonek epaileak duela 11 urte irekitako sumarioa da. 2002ko maiatzaren 2an elkartearen itxeko agindua eman zuen epaileak eta kontuak blokeatu zituen. Elkartearen berehalakoa martxan jarri zen arren, orain iritsi da erabaki hura epaitzeko garaia. Urriari hasi zen epaiketa.

Kopuru batzuk aipatu arren, 110 Herriko taberna edota elkarte gaude epaituak eta 34 inputatu. 40 abokatu baino gehiago daude lanean eta epaiketa honek eragin-dako gastuak milioi bat euroa irits daitezke. Elkarte guztien desjabetzea bilatzen dute. Gure kasuan ez dago pertsona inputaturik baina egoera horretan dauden 34 lagunei 6 eta 10 urte arteko espetxe zigorra eror dakieke.

Hiru epaile, bi fiskal... epaiketa izugarria da, lehenengo egunean ez ginen ia aretoan sartzen.

## Xirimiri zertaz dago akusatu?

Gainontzeko herriko tabernak bezala, talde armatuarekin kolaboratzeaz akusatzen zaigu. Hain zuzen elkarteak ETA diruz lagundu zuela diote. Guztiz irreal da. Gure kontuak begiratzea besterik ez dago. Bi maileru eskatu genituen bere garaian elkartearen gastuei aurre egiteko, 100 bazkide inguru gara eta beti nahiko kuota altua ordaindu behar izan dugu ozta-ozta kreditu horiei aurre egiteko...

Xirimiririk 25 urte hauetan lan asko egin du euskara, kultura, kirolaren alde besteak beste. Ekintza asko sustatu ditugu eta elkartearen beti irekita egon da herriko gainontzeko elkarte zein taldeei.

## Nola joan dira epaiketako lehenengo saioak?

Lehenengoan esan bezala ia ez ginen sartzen aretoan tartean Askabide elkartearen zegoen eta hau libre geratu zen emakumeekin lan egiten duen elkarte delako. Bigarrenetan ez deklaratu eskatu genuen fiskalak bakoitzarentzat 40 galdera prestatuta zituelako. Bi epailek onartu zuten gure eskaera eta besteak onartu ditu fiskalaren 40 galderak beraz hurrengoan ez dakit zer egingo dugun.

Epaiketa politikoa bat da eta hau salatu nahi izan genuen herriko beste elkarte batzuekin egindako agerraldian. Hain zuzen bere izaeragatik ez dugu konfiantza handirik, ez dugu berme juridikorik ikusten. Bizi dugun testuinguru politikoan ere horrelako epaiketa bat zentzugabekeria bat da. Hala ere, helburu politikoak dituen



Joxe Goikoetxea, Tomas Arruti, Peio Lizarraga eta Maidar Izagirre Xirimiriko bazkideak.

epaiketa izaki zigorrak egon direla uste dugu.

## Zein zigor eta nori eroriko litzaioke?

Gure kasuan ni naiz, Joxe, arduradun zibila. Horrek esan nahi du zigorra ez dela nire gain eroriko baizik eta elkartearen desjabetuko litzaiguke eta ezarritako isuna ordaintzera behartuta egongo ginateke. Isun horren kopurua oso altua izan daiteke. Hala ere, ez dakigu ziur ere hori izango den zigorra beste aukera batzuk ere badaude.

Hala ere, aipatu behar da epaiketarak berak nahikoa gastu ari dela sortzen eta horiei aurre egiteko kontu zenbaki bat zabaldu dugu Euskadiko Kutxan. Zenbakia 303536140360084975 da eta Xirimirirena da, izan ere beste elkartasun kontu bat dago makro epaiketaren gastu guztiei aurre egiteko.

## Hurrengo hitzordua zein duzue?

Azaroaren 25ean goaz eta bi lekuko eraman behar ditugu. Horietako bat Peio. Elkartearen diruzaina zen Garzonek duela 11 urte sumarioa ireki zuenean eta elkartearen kontuetan bere izena azaltzen da.

Ez da txantxetako bizi- tzen ari garena. Pertsonalki

zure burua epaiketaren ikustea herrian lan egiten duen elkarte bateko kide izateagatik. Kezka handiarekin gaude baina baita haserre ere, arriskuan ikusten dugulako Xirimiri elkartearen biziraupena. Zigorragatik edota isunak ordaintzeko beharko den diruak agian berdin-berdin behartuko gaitu ateak ixtea. Honi gehitu behar zaio elkartearen lan egiten duten bi langileek euren lana galduko luketela ere.

Sentimendu nahasiak dira, gogoak daukagu gauza berriak egin eta lanean jarraitzeko.

## Lasarte-Oriako beste elkarte eta herritarrek atxikimendua eman dizuete.

Bai, lehenik eta behin eskertzea da gurekin izan duten jarraera. Hainbat elkarte eta eragilerekin elkartearen joan ginen epaiketaren inguruan informatu eta lehenengo, egindako agerraldian ikusi zen bezala, epaiketa bera salatzeko. Hainbat izan ziren orduan lortutako atxikipenak.

Hala ere, harremanetan jarraitzen dugu hauekin eta babes handia nabaritzen dugula esan behar da baita orokorrean herritar askorengandik. Jendeak ez zuen sinesten Xirimiriren egoera

zein zen azaltzean. Udaltxean ere mozioa aurkeztu genuen eta aurrera atera zen Bildu eta EAJren aldeko bozak izan zituen, LOHP eta adskribitu gabeko zinegotziaren abstentzioa eta PP eta PSE-EE kontra azaldu ziren.

## Datorren urtean Xirimiririk 25 urte beteko ditu...

Bai eta urteurrena behar bezala ospatzeko asmoarekin jarraitzen dugu. Maiatzan egitekoak gara ekimen garrantzitsuena baina ziurrenik ekintza egitarau bat antolatuko dugu eta noski herritarrek hauetan parte hartzea gustatuko litzaiguke.

Epaia suposatzen dugu martxoa inguruan aterako dela. Hala ere, asko atzeratzen ari da dena eta agian gehiago luzatzen da. Egoitza eduki ala ez 25 urteurrena ospatuko dugu, lanean jarraitzeko asmoa dugu oztoko guztien gainetik. Herriko eragile bat da Xirimiri eta hala izaten jarraitu behar du. Ezin da epaile batek ebazten duela 10 urte guzti hauetako ibilbidea eta lana eten.

Aipatu behar da makro-epaiketarekin elkartasuna adierazteko krosa antolatu dela Donostian abenduaren 14an eta parte hartzea animatzen ditugu herritarrek ere.



**Pizzeria Bar Jatetxea**  
**Rummy**

Eguneko menua  
Pizzak  
Hamburgesak  
Pintxoak

**Astebukaerako MENUAK**  
**erakargarriak prezio onean**

**Taldeentzako menuak**

Kale Nagusia 71  
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565



**REFORMAS**  
Javier Lasa  
Tfnoa 688618596  
xabilasa@euskaltel.net

**Konpromezurik gabeko aurrekontuak**  
**Konponketak** Presupuestos sin compromiso  
**Bainontzi aldatzea** Pequeñas Reparaciones  
**Sukaldeak** Sustitución de Bañeras  
**Komunak** Cocinas Baños

## PILOTA.

# Begiristain anaiak pala motzean txapelaldun orde

Intza elkarteko Axier Arteagak Diario Vasco txapelketako final-laurdenak jokatu zituen ostiralean

**Pilota denboraldiko lehen txapelketak amaitzeko dira eta herriko hainbat pilotari azken faseetan daude lehian. Pala motzeko lehiaketaren kasuan, finalak dagoeneko jokatu dira eta Begiristain anaiak bigarren postua eskuratu dute. Esku pilotari dago-kionez, Axier Arteaga gazteak ostiralean DV txapelketako final-laurdenetan jokatu eta Intzako Jubenil mailako bikotearekin Ezker hormako txapelketako finalerdietan izango da azaroaren 23an.**

## NEREA EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako pilotariak fin dabilta denboraldi hasiera honetan. II. mailako Gipuzkoako pala motzeko txapelketako finalean izan ziren Begiristain anaiak azaroaren 10ean; ostiralean, Axier Arteagak DV txapelketako final-laurdenak jokatu zituen eta hurrengo larunbatean, Intzako I. jubenil bikoteak Ezker hormako txapelketako finalerdia jokatu du Kirol guneko pilotalekuan.

## Pala motzeko finala

Mikel eta Jon Begiristain anaiak Usurbilgo pala taldearekin ari dira lehian eta denboraldi hasiera honetan II. mailako pala motzeko txapelketan lan ederra burutu dute.

Azaroaren 10ean, Fanderiako pilotalekuan, II. mailako finala jokatu zuten eta aurrez aurre Landa elkarteko bikotea

izan zuten. 40-27 galdu zuten lasarteoriatarrek.

Jon Begiristainek azaldu digunez, "arerioak hobetu jokatu zuen. Hasieratik hamar tantoko errenta atera ziguten eta ezin izan genuen ezer egin".

Gainera, "partida amaitzeko gutxi falta zela, hatz bateko hezurretako bat hautsi nuen. Ezin izan nuen saria jaso," onartu du.

## Txapelketa ederra

Oso pozik agertu da txapelketa honetan egindako lanarekin. "Lehen fasean bat izan ezik, guztiak irabazi genituen. Finalurrekoan Alzatarra-ko bikotea garaitu genuen."

Hurrengo urtean, txapelketa honetako I. mailan lehiatuko direla jakitera eman du, "finalerako sailkatu eta maila igoera lortu genuen. Hurrengo urtean, txapelketa gogorragoa izango da guretzat".

Orain, II. mailako larruzko



Jon Begiristain finaleko momentu batean. GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAKUNTZA

paleta txapelketa hasiko dute eta honetan ere lan ederra egitea espero dute. "Nik ezin dut lehen jardunaldietan parte hartu, baina osatzean bertan izango naiz," aipatu du Jonnek.

## DV txapelketa

Ostirala gauean, berriz, Diario Vasco txapelketaren barruko promesa mailako final-laurdenetako bat jokatu zen Soroluzen.

Honetan lehiatzen ari den Axier Arteaga herritarra eta txapelketa honetan bere bikote den Xanet Imazek Altuna-Martija bikotea izango dute aurrez aurre. Jose Felix Solano, Intzako entrenatzaileak

azaldu zuenez, "partida zaila izango da, txapelketako guztiak bezala".

Final-zortzirenetan, Aguirre eta Larrañaga bikote arbarra erraz irabazi zuten, 22-4.

"Axier Arteagak partida ederra egin zuen, erremate ikusgarri eta guzti," adierazi du Solanok.

## Ezker horma

Bestalde, Intza pilota elkarteko gazteak ezker hormako txapelketan ari dira lehian. Senior eta jubenilek lehen fasea amaitu dute eta aipatu legez, jubenilak finalurrekoak jokatu dituzte.

1. mailako jubenil bikotea

Axier Arteaga berak eta Aritz Solano eta Mikel Araguren atzelariak osatu dute. Jose Felix Solano entrenatzaileak azaldu digunez, lehen fasean multzoko lehen postuan amaitu dute, 6 partida irabazi eta 1 galdu ondoren.

Ondorioz, Gipuzkoako txapelketako finalera bidea egingo dute jubenilek. Lehengo, azaroaren 23an finalerdia jokatu dute etxean eta aurrez-aurre Aurrera Saiatz taldeko bikotea izango dute gazteek.

## Senior eta kadeteak

II. mailako seniorrak, aldiz, 5. postuan sailkatu dira lehen fase honetan.

Intzako entrenatzaileak aipatu digunez, txapelketako helburua bete dute, "maila mantentzea zen gure asmoa eta ederki egin dute".

Maila honetan pilotari gehiago jokatu dira: aurrelari lanetan Aritz Urkia eta Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola, Ander Rekondo eta Xabi Arteaga izan dira atzelariak.

II. mailako kadeteek dago-kionez, gaztetxoek oraindik hiru jardunaldi dituzte aurretik.

Sailkapenean taula erdian daude eta partida hauek erabakiorrak izan daitezke.

Asteburu honetan, Andoingo Gazteleku izan dute aurkari.

## TXIRRINDULARITZA.

## Errazkin garaile Arbulon

Buruntzapzi txirrindularitza eskolako gazteak ziklokros denboraldi paregabea egiten ari dira. Azaroaren 9an, Xuban Errazkin juniorra Arbuloko ziklokros txapelketan irabazle izan zen. Kadete mailan berriz, Iñigo Altunak bosgarren amaitu zuen proba.

Xuban Errazkin lasterketa "hasieratik lehen postuetan izan zen eta azken itzulian lehenengo jarri zen" azaldu digu Bazpiko Iñaki Altuna prestatzaileak.

Era horretara, Errazkinek 34 segundoko errenta atera zion bigarren sailkatuari

Errazkinez gain, Iñigo Altuna kadeteak ere lehen postuetan egotea lortu zuen. Lasterketan bigarren postuan joan zela aipatu digu Altunak, "baina zinta



Xuban Errazkin Arbuloko probako podiumean. BAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

batean heldua geratu zen eta postu batzuk galdu zituen." Lagarren postua ere eskura izan zuen baina Jon Ander Musituk helmuga bertan aurreratu zuen.

Bestalde, junior mailan Jon Ander Unanuek bederatzigarren postuan iritsi zen helmugara eta

Luis Sobejano, Arkaitz Murillo eta Imanol Martinez ere lasterketa "ohore handiz" bukatu zuten.

Igandean, berriz, Xuban Errazkin eta Iñigo Altuna Elorrioren izan ziren lehian. Baina ibilbidean zen lokatza zailtasun handia izan zen txirrindularientzat.

## LABURRAK.

### Fermin Balda judoka bosgarren Hondarribian

Lehenengo larunbatean, azaroaren 9an, Espainiako Super Kopako jardunaldia izan zen Hondarribian. Honetan LOKEko Fermin Balda eta Oscar Garridok parte hartu zuten, 73 kilo azpiko mailan.

Baldak bosgarren postuan amaitu zuen lehia. Final aurrekoetaraino borroka guztiak irabazi zituen gazteak, baina Pablo Castela asturiarraren aurka galdu zuen finalen egoteko aukera. Hirugarren postuaren lehian ere Dimas Leiros galegoaren aurka huts egin zuen.

Oscar Garridok berriz, bi borroka irabazi zituen eta final zortzirenetan galdu zuen Extremadurako Antonio Mazaren aurka. Ez zuen bigarren aukerarik izan.

Asteburu honetan, LOKEko juniorrak Amurrioren izan dira Espainiako kopako jardunaldian.

### Eneritz Busto atletak aipamen berezia

Gipuzkoako Atletismo Federakuntzak iazko denboraldiko atleta hobereenak saritu zituen azaroaren 8an, Palacio de Aiete hotelan egin zen ekitaldian.

Honetan Eneritz Busto LOKEko atleta gazteak aipamen berezia jaso zuen. 2012-2013 denboraldian pista estalian lortutako proba konbinatuetako Euskadiko errekorra lortu zuen Lasarte-Oriako gazteak.

## Agenda

Larunbata 23, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



### Lorea eta bizitza

Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan, "B. Flowers" dantza ikuskizuna eskainiko du Marta Carrascoren dantza konpainiak. Beste lore bat, beste bizitza bat... Amaitzen ez den taupada bat. Lehen eta azken bidaia. Milioka lore moztuak izaten dira egunero sentimenduzko arrazoiengatik edo apaintasun arrazoiengatik... Zer gertatzen da gero loreekin...? Zer gertatzen ari da...? Hauek eta galdera gehiago erantzuten saiatzen dira dantza emanaldi honetan. Sarrerak, leihatilan 6,50 euro; internet bidez, 5,40 euro. Eusko Jaurlaritzak babestutako ekintza.

**Igandea 24, 17:00etan**  
"Zarafa" umeentzako filmaren saio berezia izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

**ZULO ARETOA**

**Larunbata 23, 21:00etan**

Mozorro festa glamurosoa egingo da. sorpresaz beteriko jaia.

### Musika

**ZULO ARETOA**

**Ostirala 22, 22:30ean**

"Eardrum" taldeak besteak beste, Mbaka Oke, Amalgama, Kulto Kultibo edo Sorkunen doinuak eskainiko ditu. Ondoren, "Trifulca Posse"-ko Dj Pataren saioa izango da.

### Santa Zezilia eguna

**LASARTE-ORIA ERDIALDEA**

**Astearte 19, 18:15ean**

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako ikasleek kalejira bat antolatu dute herriko kaleetatik barrena.

**ARANTZAZUKO AMA ELIZA**

**Igandea 24, 12:30ean**

Alboka Abesbatzak Zumaburuko Arantzazuko Ama elizako meza nagusia girotuko du.

### Sari banaketa

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Larunbata 23, 12:00etan**

Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketako sari-banaketa egingo da. Helduen, zein haur eta gazteen mailako sariak eman go dira.

### Lasarte-Oria

#### Genero indarkeria

**EMAKUME ZENTROA**

**Ostirala 22, 19:00etan**

Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroaren aurkezpena egingo da.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Astearte 19, 18:30ean**

"Blue Valentine" filmaren bideo foruma izango da. Dai-teke-ko berdintasun teknikariak moderatuko du.



**Larunbata 23, 11:00etan**

Maite Francok 4 eta 8 urte arteko haurrentzat "Bizarurdinak" ipuina eskainiko du.

**ARAETA JATETXEA**

**Ostirala 22, 21:30ean**

Herriko pertsona guztiei irekitako afora izango da. Ostean, dantza eta dj-a. Afariaren prezioa, 22 euro. Izena ematea, emakume zentroan.

#### Irakurle txokoa

**VILLA MIRENTXU**

**Astearte 19, 18:30ean**

Irene Nemirovsky-ren "Dantzaldia"

lana aztertuko dute Uxue Alberdi idazlearen laguntzaz.

#### Okendo ZT 25+2

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Osteguna 21, 21:30ean**

"Paris, Texas" filma-

ren saio berezia.

Sarrera, leihatilan

4,65 euro; internet

bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

**Ostirala 22, 22:00etan**

Kimuak-eko film laburren emanaldia eta herriko hainbat taldeekin antolatutako hainbat sorpresa.



## Herritarren txokoa

#### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da azaroaren 22an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

#### Biyak Bat elkarte Calahorrara

Biyak Bat Elkarteak hileroko irteera antolatu du Calahorrara, azaroaren 28an izango da txangoa. Autobusa goizeko 8:00etan aterako da egoitzatik. Calahorra herriz bizitatu eta bazkaria "El Montecillo" finka jate-txean izango da. Bazkal ostean, bingoa, dantzaldia eta jai "kanperoa" izango direla jakitera eman dute bidaiko antolatzaileek.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnak, berriz, 40 euro. Izena emateko egoitzako bulegora hurbildu behar da.

#### Lasartearra elkarte barrikotea eta loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten die, urtero antolatzen den barrikoterako izena emateko ireki dela. Elkarteko zuzendaritzak jakin arazi duenez, abenduaren 8a izango da izena emateko azken eguna.

tea ireki dela. Elkarteko zuzendaritzak jakin arazi duenez, abenduaren 8a izango da izena emateko azken eguna.

Era berean, Gabonetako loteriako txartelak salgai ditu. Hauek eskuratzeko, elkarteko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

#### Ingeles Mintzapraktika

Ingelesa ikasten ari garen lagun talde bat gara eta astean behin ikasitakoa praktikan jarri nahi dugu.

Ingeles maila ertaina edo gehixeago baduzu eta zuk ingeles mintzapraktika nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan, [solaskideinglesa@gmail.com](mailto:solaskideinglesa@gmail.com).

#### Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

#### Eskutitza

#### Bigarren Ingurubideak alboko kalteak sortu ditu Errekalden

*Consumer* aldizkariak "Los peores desastres urbanos de España" izenburuko erreportaia plazaratu berri du ([www.consumer.es/web/es/medio\\_ambiente/urbano/2013/11/04/218471.php](http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2013/11/04/218471.php)). Besteak beste, Nacion Rotonda webgunearen berri ematen du. Webgune horrek satelite bidezko argazkiak biltzen ditu, eta horien bitartez azken hamar-hamabost urteotan Estatu espainoleko hainbat udalerritan eginiko txikizio ekologikoak agerian uztea du helburu. Udalerririk horietako bat Donostia da. Bi argazkik ordezkatzen dute Gipuzkoako hiriburua, biak ala biak Errekalde ingurukoak. Bata da Bigarren Inburubidea egin aurretik ateratakoa; bestea, berriz, egin ondorengoa. Atxikita bidaltzen ditugu, baina webgune bera bisitatzea gomendatzen dugu ([www.nacionrotonda.com/search/label/Gipuzkoa](http://www.nacionrotonda.com/search/label/Gipuzkoa)), argazki bat bestearen gainean ipintzeko aukera ematen duelako eta, horrela, Errekalde inguruak pairatu duen aldaketa are ikusgarriagoa delako.

Irudiok txikizioaren neurria agerian uzten dute, baina badira irudiotan nekez ikus daitezkeen alboko kalteak ere. Horietako bat da ezin dela oinez joan

Lasartetik Errekaldera; eta alderantziz, jakina. Esan izan da garraio azpiegitura erraldoiek elkarrengandik urruti dauden herriak lotzen, baina, aldi berean, elkarrengandik gertu daudenak bereizten dituztela. Horren lekuko garbia da Bigarren Ingurubidea Errekalde partean. Izan ere, porlanean sekulako dirutza xahutu arren (edo, hain justu, horren ondorioz), gaur egun ez dago oinezkoentzako biderik Lasarte eta Errekalde bitartean. Esaterako, Lasartetik Errekaldeko tanatoriora joan behar duten herritarrek, derrigorrez autoz, autobusez edo trennez joan behar dute, tarte kilometro eskasekoa bada ere.

Arestian esan bezala, Bigarren Ingurubideak sekulako txikizio ekologikoa eragin zuen Errekalde inguruan, baina, gainera, oraindik konpondu gabe dauden alboko kalteak sortu zituen. Lasarte eta Errekalde-Añorga (eta, ondorioz, Donostia) lotuko dituen oinezkoentzako bidea falta dugu, alegia.

Eguzki talde ekologista

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

# Zinema zaletasuna urtez urte sustatzen

Okendo Zinema Taldeak bere 25+2 urteurrena ospatuko du aste honetan

**Zinema asko gustoko zuen lagun talde batek eman zituen Okendo Zinema Taldeko lehen pausoak, 1986an. Urteak igaro ahala, taldeko kideak, aretoa, filmak egiteko era aldatu dira. Baina OZT-k irmo lanean jarraitu du Lasarte-Orian zinema egon dadin. 25+2 urte egin dituzte azaroaren 8an eta herri guztiarekin ospatu nahi dute data berezi hori.**

Nerea EIZAGIRRE

**E**n busca del fuego" pelikula izan zen 1986an, lehen Okendo zinema taldeak eskaini zuen lehenengo pelikula. Geroztik 25+2 urte igaro dira eta milaka film ikusi ahal izan dira Tedoso zinema, Manuel Lekuona kultur-etxeko areto zein, Okendo plazako pilotaleku edo plazan bertan. Okendo Zinema Taldeko Laura Nogueras eta Leire Garmendiarekin bildu gara taldeari eta ospakizunei buruz gehiago jakiteko.

Laurak Okendo Zinema taldean hiru aro desberdin egon direla azaldu digu.

## Hiru aroak

1986an hasi zen lehengoa. "Lehen Lasarten bi edo hiru zinema zeuden eta pixka bat ohitura horri jarraikiz, lagun talde batek pelikulak jarri nahi izan zituen, nolabait kalitatezkoak eta ez komertzialak. Garai hartako Kultura zinegotziarekin bildu ziren eta nolabait osteguneko saio hauek antolatu zituzten. Orduan

Tedoso zen zinema eta haiek arduratzen ziren guztiaz, saltzen zituzten sarrerak, zinea txukundu, garbitu..." aipatu dute.

Eta gogora ekarri dute, orduan ostegunerako zegoela zinema saioa, "garai horretan kultura mugimendua handia zegoen herrian eta jende asko joaten zen zinemara. Ostegunerako plana hori zen, bokata bat hartu eta zineraz. Jende guztiak hori egiten zuen ikasten ari zirenek, lanean ari zirenek, gazteak... Urte askotan ekintza arrakastatsua izan zen," azpimarratu dute.

Lehen fasea hori Tedoso itxi zenean amaitu zen.

1992an bigarren fasea hasi zen Manuel Lekuona kultur-etxea ireki zutenean, hain zuzen.

"Urte askotan egondako jendeak utzi zuen, batzuk mantendu ziren eta berriak sartu ginen," aipatu du Laurak.

Baina funtsean taldeak berdin lan egiten zuela azpimarratu du, "eskema mantendu, film zerrenda bat aukeratu eta udalari jakin arazi".



25+2 urte hauetan Okendo Zinema Taldea osatu duten lan taldeetako bat.

2005. urtean taldeak zine emanaldiak antolatzeari utzi zion. "13 urte igaro ziren eta horietan gauza asko gertatzen da. Jendearen bizitza aldatzen da eta gainera, Udaletxetik arazotxo batzuk sortu ziren".

Orduan "zinemarik ez zegoela topatu eta arrazoiarengatik galdezka hasi ginen," jakin arazi du Leirek.

"Batzuk oso nekatuak zuedela, Udalarekin ez zegoela akordiorik...Eta hasi ginen beste jende talde bat biltzen eta bilerak egiten. Ezinezkoa zela esaten ziguten, baina gu borrokatu genuen. Inkesta bat egin genuen herritarren artean, Azkenean bi urteren ondoren lortu genuen. Baina hamabostean behin egiteko proposatu ziguten eta pixkanaka, gaur egunera arte," atxiki du.

Eta ezin ahaztu udako saioak, "urte betez geratuak egon ziren. Okendo plazako lanengatik," gogoratu du.

## Kide eta ikusle ugari

Urte hauetan guztietan, Okendo zinema taldeak kide eta ikusle ugari izan ditu.

"Okendo Zinema Taldearen ezaugarrietako bat izan da beti, jende desberdina batu duela. Talde irekia da. Nik eza gutu dut jende asko adin, pentsamolde desberdinetakoak, baina denok dugu

zinea irizpide bezala," azaldu du Laurak.

Hala ere, ikusle kopurua murrizta dela jakitera eman digute, "batz bestekoa 20 edo 30 da. Pelikularen arabera edo gaiaren arabera, betetzen da. Esate baterako, Goya sariren bat jartzen dugunean jendea agertzen da, 200 pertsona erraz," diote.

"Gazteak eramatea asko kostatzen da, batez ere, adin bateko jendea da etortzen dena. Gazteek internet dute. Sarrerak balioa du. Bonoekin edo internet bidez merkeagoa da, baina..." adierazi dute.

"Urtetik urtera ikusi beharko da taldea nora doan. Azkenean jendeak ere bere nondik norakoak, istorioak ditu.... Jende berria sartzen ez bada, bultzatzen duena zaila izango da irautea. Oraingoan, gogoz ari gara eta saiatuko gara hala jarraitzen. Gero gerokoak," onartu dute.

## 25+2

Hau guztiaz gain, 25+2 urteurrenaren zergatia ere azaldu digute, "taldea 1988ko azaroaren 8an ofizializatu zen. Paperak begiratzen gure kideetako bat konturatu zen 25 urte betetzen genituela".

"Kontsultatu eta zaharrek esan ziguten bi urte lehenagotik hasi zirela lanean. Horrega-

tik gure ospakizunetan 25+2 diogu. Bi urte horiek ere ospatu nahi ditugu. Guztiaren sorrera izan ziren. Lagun talde horrek lan handia egin zuen eta nolabait lan hori aitortu nahi dugu".

## Egitaraua

Data berezi hori ospatzeko lau eguneko egitaraua antolatu du taldeak.

Ostegunetan, "Paris, Texas" filma eskainiko dute. "Okendotar askok ikusi gabeko pelikula da eta ikusteko gogoia genuen gutako askok," azaltzen dute.

"Bere garaian pelikula oso esanguratsua izan zen eta estetika aldetik ere berezia da. Wim Wenders oso zuzendari ona da eta izena du European," adierazi dute.

Ostiralean, berriz, laburmetrai saioa izango da Manuel Lekuona kultur-etxean. Honekin herriko beste taldeekin zerbait berezia egingo dutela aurreratu dute.

Larunabatean, Zulon festa handia izango da, "glamourrez betetako" mozorro festa. Herri guztiari irekia izango dela azaldu dute eta honetan "Okendo Zinema taldeko garai desberdinetako jendea batu nahi dugu".

Azkenik, igandean, gazte-txoentzat emanaldia berezia izango da. "Aurretik bi lagunek haien kale ikuskizuna eskainiko dute".

Hau guztiaz gain, sorpresa ugari iragarri dituzte eta aurrerapen moduan, "zinema zaleak garenez, guk ere film bat egin dugu eta ostiralean, estreinaldi mundiala izango da".

Azkenik, urteurren hau ospatzeko kamisetak salgai jarriko dituztela ere aurreratu dute "Okendo zinema taldeko kamisetek arrakasta izan zuten bere garaian eta aurten ere kamiseta berezi batzuk egingo ditugu".



Tedoso zinema, Manuel Lekuonan edo Okendoko pilotalekuan eskaini dituzte filmak.

**MOJITOAK  
KOKTEL BEREZIAK  
astebukaeretan**

**Ostegunetan  
PINTXO POTE**

**ZULO**

Asteazkenetik igandera  
17:00etatik aurrera

**IREKITA**

Zulo Aretoa: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte  
WWW.SALAZULO.COM